

Ohiko galdera-sorta (FAQ):

Ikasle guztiak izan ohi dituzte nolabaiteko zalantzak batxilergoaren hasieran. Gehiago edo gutxiago, Oiartzotik pasa diren ikasle guztiak izan dituzte. Haiek izandako zalantzak eta galderak jaso eta erantzun ditugu orri hauetan. Seguru lagungarriak direla.

Egokia da batxilergoa goi-mailako lanbide heziketarako?

Bai, egokia da. Goi-mailako zikloak maila altuko ikasketak dira eta gure inguruan ikastetxe eta enpresa sare sendoa dugu. Aukera hau egiten duten gazteei lan-mundurako ateak zabaltzen dizkien sistema sendoa bat dugu lanbide heziketan.

Aipatutakoagatik, goi-mailako lanbide heziketa geroz eta eskari handiagoa duen ikasketa etapa da. Batxilergoa bide egokia da prestakuntza eta oinarri ona ematen duelako goi-mailako zikloetara begira eta jarduera osagarri ugarirekin jarraitzeko aukera ematen duelako.

Derrigorrezkoa da USaP egitea (selektibitatea) batxilergoa gainditzeko?

Ez. USE unibertsitatean gradu bat ikasi ahal izateko da derrigorrezkoa. Baina goi mailako zikloetarako ez. Beraz, behin batxilergoa amaituta, ikasleak erabakitzen du zer egin nahi duen eta USE egin behar duen edo ez.

Oiartzon gure ikasleei USaP egitea aholkatzen diegu. Batxilergoa gainditu duen batek USaP gainditu dezake-eta. Gainera, fase orokorreko nota betirako gordetzen denez, etorkizunean unibertsitatera sartu nahi izanez gero baliagarria suertatu daiteke. Gure ikasleen %95-98 inguruk egin ohi du USaP azterketa, baina horietatik zati bat zikloetara joateko erabakia hartuta zen azterketa egin aurretik. Hala eta guztiz, badaezpada egin zuten eta denek gainditu zuten.

Zientziak, letrak edo orokorra? Zer aukeratuko dut?

Norberak erabaki behar du eta oso erabaki pertsonala da. Lehendabizi gure nahiei eta gustuei begiratu behar diegu. Non ikusten gara etorkizunean? Zer ikasi nahi dut? Zertan egin nahi dut lan? Non sentitzen naiz eroso? Zein dira gehien gustatzen zaizkidan ikasgaiak?

Hitz egitea gomendatzen dugu: familiarekin, lagunekin, orientatzaileekin, irakasleekin. Besteen iritzi eta aholkuekin gure erabakia elikatzen saiatu behar dugu. Galdera horiek erantzun ondoren ikuspuntu praktikoago batetik begiratu behar dugu. Etorkizunerako buruan ditudan ikasketetarako, zein batxilergo komeni zait? Zein da ibilbide egokiena? Kontuan izan behar da lanbide heziketako ziklo batzuetan eta unibertsitate gradu batzuetan zientzietako batxilergoa lehenesten dela.

Informazio horrekin eta gure gustuen inguruko gogoeta eginda aukera desberdinak baloratu beharko ditugu.

Asko ikasi behar da batxilergoan?

Batxilergoan garrantzitsuena lan-ohiturak dira. Gaien erritmoa DBHn baino altuago da eta ebaluazio-garaian materia pilatzen da. Lanak eguneratuta izateko gaitasuna duten ikasleek abantaila handia dute. Eguneroko lana behar den bezala egiteak, ebaluazio-garaian lan-karga murrizten du eta askoz ere eramangarriagoa da. Klaseak aprobetxatzea, lanak eguneratuta edukitzea eta ebaluazioetan esfortzu bat egitea da batxilergoan ateratzeko errezeta. Hiru osagai horiekin, oso zaila da huts egitea.

Zein da Oiartzoko ordutegia?

Oiartzon 7:45ean hasten gara eta 14:30ean amaitzen dugu (ostiraletan, 14:25ean). Egunean 50 minutuko 7 saio izaten ditugu eta tartean bi atsedenaldi (ostiraletan, 6 saio). Arratsaldeak libre izaten dira egunero.

Nola egin ohi dira azterketak?

Ebaluazio bakoitzaren amaieran 4 azterketa-egun izaten ditugu. Azterketa egunetan ez dugu klaserik izaten. Ostegunetan hasten gara eta asteartean bukatzen dugu (beti asteburua tartean). Lau egun horietan egunean 2 azterketa egiten dira. Guztira 7-8 azterketa egin ohi ditugu (aukeratutako gaien arabera). Ordutegia ere berezia izaten da: 7:45-12:30 izaten da, eta bigarren azterketa amaitutakoan etxera joateko baimena izaten dute ikasleek.

Kontrolak ere egiten ditugu. Gai bakoitzak bere ezaugarrien arabera antolatzen du kontrolen egutegia. Gai batzuetan gehiago egiten dira, beste batzuetan gutxiago. Baina aipatutako azterketa egun horietara lan karga gutxiagorekin iristeko balio dute, eta ebaluazio jarraia egiteko.

Berreskurapen-garaia azterketen bera izaten da, prozedurari dagokionez. Ebaluazioko berreskurapenak 2 egunetan egiten ditugu. Bi egun horietan guztira 4 azterketa egiten dira, jendetsuenak. Gainontzekoak irakaslearekin adostutako datetan egiten dira. Ordutegia ebaluazio- garaiko bera da. Dena gaindituta dutenek ez dute ikastolara etorri behar egun horietan. Ez da sari txarra bi egun jai izatea dena gainditzeagatik!

Badaude berreskurapenak?

Badaude, bai. Lehenengo eta bigarren ebaluazioek berreskurapenak dituzte. Hirugarren ebaluazioak, berriz, ez du berreskurapenik eta gainditu gabeko gaiak zuzenean ohiko deialdian egin behar dira. Ohiko deialdi honetan 1. eta 2. ebaluazioen berreskurapenetan gainditu gabeak eta 3. ebaluazioan gainditu ez direnak egiten dira. Azkenik ez-ohiko ebaluazioa dago, ohikoan utzitako gaiak gainditzeko. Guztira, 1. eta 2. ebaluazioetan, 4 aukera daude gainditzeko eta hirugarrenean, 3 aukera. Dena dela, ez pentsatu ohiko, ez-ohiko... gauzetan. Pentsatu dena gaindituz gero maiatzaren erdialdean oportretan izaten direla gure ikasleak

Zenbat suspentsorekin errepikatzen da maila?

Lehenengo mailan 2 suspentso edo gutxiagorekin maila gainditzen da. Berdin du zein diren gaiak, muga 2 gai horietan dago. Hiru gai edo gehiago geratzen badira gainditu gabe, maila errepikatu behar da.

Bigarren mailan, berriz, gai guztiak gainditu behar dira ikasturtea gainditzeko, bai lehenengo mailakoak baita bigarren mailakoak ere. Edo eta bakarra utz daiteke. Bakar hau ez gainditzeak etorkizunean ikasleari oinarritzko hutsunea eragin diezaiokeen eta ikaslea gutxieneko gaitasun orokorrak barneratzera iritsi den aztertu ondoren erabakiko da klaustroan. Emaidza aldekoa denean soilik eskuratuko du ikasleak batxilergoko titulua baina bere curriculumean ikasgai bat ez gainditu izanaren aipamen hau agertuko zaio. Errepikatzerakoan -baldintza batzuetan- errepikatutako gai horiek bakarrik egin daitezke, beste guztien nota mantenduta.

Zientzietako batxilergoa eginda, ondoren burutu dezaket gizarte zientzietako ikasketaren bat?

Bai. Zientzietako gradu eta ziklo batzuetan batxilergo zientifikoa lehenesten da. Baina gizarte zientzietako ziklo eta graduatan ez da batxilergo-motarik lehenesten. Beraz, zientzietakoek gizarte zientzietako ikasketak egin ditzakete (ia beti) baldintza berdinetan. Gerta daiteke goi mailako ziklo batzuetan hau posible ez izatea, giza-gizarte zientzietako batxilergoa edo bertako gaiak lehenesten dituztelako.

Giza-gizarte zientzietako batxilergoa egin eta ondoren zientzietako ikasketaren bat burutu dezaket?

Zientzietako graduatan (Ingeniaritza eta arkitektura graduatan) zientzietako batxilergoa lehenesten da. Hortaz, lehendabizi batxilergo zientifikokoak sartuko dira ikasketa horietara, eta ondoren gainontzeko batxilergoetakoak. Kontuan izanda ia gradu guztiak bete egiten direla, oso zaila da gizarte zientzietako batek zientzien familiako gradu bat egitea. Gainera, oinarri falta bat izango luke hau egin nahi duen ikasleak.

Lanbide heziketan printzipioa berdina da. Ziklo tekniko eta zientifiko batzuetan zientzietako batxilergoa lehenesten da, beraz lehendabizi batxilergo-mota horretakoak sartuko dira. Dena dela, Gizarte zientzietakoak sartu daitezke, beti ere plazak geratu badira lehentasuna duten horiek sartu ondoren.

Oiartzoko esperientziaren baitan, ohikoa da giza-gizarte zientzietako ikasleak batxilergo zientifikoari lotuago dauden ikasketetan ikustea, baina zenbait ziklotan ia ezinezkoa dela ere ikusi dugu.

Arte-ikasketak burutu ditzaket Oiartzon batxilergoa egin eta gero?

Bai. Ikasketa artistikoetan ez da batxilergo-mota bat lehenesten, beraz, berdin du zientzietako batxilergotik, giza-gizarte zientzietakotik edo artistikotik sartu. Egia da haztatze-parametroei dagokionean gai artistikoak egin dituztenek (batxilergo artistikoan) 14/14 puntuazioa lortu dezaketela, eta gainontzeko batxilergoetakoek 11/14 lortu ahal dutela. Dena dela, kontuan izan behar da Bilbon Artea ikasteko 5,00 puntuko nota izan zela ez-ohiko deialdian eta Sorkuntza eta Diseinuan 8,31 puntuko nota behar izan zela (14tik) 2023-24 ikasturtean, nahiko nota

baxua. Oiartzon batxilergoko espedientearen batezbesteko nota (aipatu berri dugun notaren %60) 7,6 inguruan izaten dela kontuan izanda, lortzeko moduko notak dira.

Modalitate bat aukeratu eta 1. maila egin ondoren konturatu naiz aldatu egin nahi dudala. Posible da modalitatez aldatzea?

Bai posible da. Modalitate aldaketa onartua dago batxilergoan, baina horrek ondorio batzuk dakartza. Modalitateen atalean azaldu bezala, maila bakoitzean modalitateko 3 gai egin behar dira (enborrekoa + 2). Hau da, guztira modalitateko 6 gai egin behar dira.

Beraz, modalitatez aldatzen den ikasleak, 2. mailan modalitate berriko gaiak egiteaz gain, aurreko ikasturtean egin beharreko 3 gaiak ere gainditu beharko ditu (modalitate berriari dagozkionak). Ondorioz, aldaketa bat dagoenean ikasleak 1. mailako modalitateko 3 gai "pendiente" edo suspendituta eramango ditu ikasturte berrira, eta ikasturte bukaerarako modalitateko 6 gaiak gaindituta izan beharko ditu.

Erabaki honetan modalitateak asko eragiten du. Orokorretik beste modalitatearen batetara den, zein irakasgai egin diren modalitate barruan eta abar. Legez egingarria da, baina egoerak banaka aztertu behar dira. Kasu batzuetan, ikasturtea zama handiarekin gainditzea esan nahi du (2. maila osoa + 1. mailako 3 modalitateko gaiak egin behar dira). Beste batzuetan berriz, oso natural eta eroso egin ahalko da. Dena egoeraren, modalitateen eta egindako irakasgaien arabera izango da.

Zergatik ezin ditut aldi berean biologia eta marrazketa teknikoa ikasi?

Bi arrazoi nagusi daude hori egin ezin izateko. Batetik, ibilbideen arazoa. Hasiera batean interesgarria ematen badu ere ibilbide desberdinak zabalik mantentzeak, praktikan ezinezkoa da. Zientzietako modalitatearen barruan ibilbide posibleak ez dira asko (3) eta denetan fisika-kimika hartzea komeni da. Bigarren mailan hartzen du horrek zentzua, unibertsitateko graduetara sartzeko haztatze-parametroak ikusten hasten garenean. Parametro horiei erreparatuz gero, 3 bide posible bakarrik daude eta guztiek dute fisika edo kimika. Beraz, ezinbestekoa da 2. mailan gai hauetako bat hartzea. Ondorioz, nahitaezkoa da 1. mailan ere fisika-kimika hartzea. Horrek aukera bakarra uzten du betetzeko, baina bi irakasgai posible: biologia-geologia eta marrazketa teknika. Bietatik bakarra egin daiteke.

Bigarren arrazoia antolaketaren ingurukoa da. Bigarren mailan (berez) unibertsitateara joan nahi ez duten horiek egin ahalko lukete biologia eta marrazketa teknika. Baina honek 1. mailan biak egitea esan nahi du. Praktikan ia ezinezkoa da. Horretaz gain, 3 ibilbide antolatzea nahikoa zaila da, eta Oiartzoko baliabide eta ikasle-kopuruarekin ezin dugu 4. ibilbidea proposatu. Gainera, praktikan 2. mailara inor ez da iristen ibilbide hau hartzeko asmoarekin.

Latinetik GZ matematikara aldatu naiteke 1. maila bukatu ondoren?

Bai. Aldaketa hori egiteak 1. mailan egin den gaia baliogabetzen du (kasu honetan, latina), eta 2. mailan GZ matematika I eta GZ matematika II gainditu behar dira. Batean klasera joateko aukera izango du (2. mailako gaian), baina bestean, gaia gainditu gabe dutenen antzera, bere kasa pasa beharko du. Baliteke oinarri falta ere izatea 2. mailako matematikari ongi eusteko. Beraz, aldaketa hauek ongi planteatu eta hausnartu behar dira ikasle, guraso, orientatzaile eta klastroaren parte- hartzearekin.

Zer dira haztatze-parametroak?

Haztatze-parametroak Euskal Herriko Unibertsitateak bertako graduatarako sarrera barematzeko erabiltzen dituen parametroak dira. EHUko graduatarako sarrera puntuazioaren bitartez egiten da. Ikasle bakoitzak 14 puntu lortu ditzake guztira. Batxilergoa eta USEren (Unibertsitatera Sartzeko Ebaluazioa) derrigorrezko zatiarekin 10 puntura arte lortu daitezke. Haztatze-parametroekin 4 gehiago. Parametro horien bitartez, gradu bakoitzak gai batzuei ematen die garrantzia eta "extra" puntuatzen ditu gai horiek. Horren ondorioz, badaude ikasle batzuk derrigorrezko gaiez gain beste batzuk ere egin behar dituztenak USEn, 4 puntu extra horiek lortzeko.

Arkitektura ikasi nahi duen ikasle baten kasuan, batxilergoko eta selektibitatearen nahitaezko zatiarekin 10 punturaino lortu ahalko ditu. Baina arkitekturako haztatze-parametroei begiratuta, ikusiko du Matematikan atera duen nota x 0,2 egingo zaiola. Hau da, matematikan 8 bat atera badu, bere batezbestekora 1,6 puntu gehituko dizkio zuzenean (10arte atera duena + 1,6). Fisikan eta marrazketa teknikoan, bakoitzeko nota x 0,1 egingo zaiola. Bi gai hauen azterketa egitea erabakitzen badu, 14 puntura arte lortu ahalko ditu arkitekturara sartzeko.

Bada sarrera notarik goi-mailako lanbide heziketan?

Bai. Lanbide heziketako zikloetan eskura dauden plazak baino eskaera gehiago badaude, notaren arabera erabakiko da zein sartzeko den. Batxilergokoentzako da plazen %60a, eta plaza horiek nota onena dutenen artean banatuko dira. Sarrera-notaz gain, lanbide heziketan batxilergo-motari edo egindako gaiei ere egiten zaie erreferentzia. Orain arte batxilergo lehenetsiak egon dira eta ematen du LOMLOE aplikatu ondoren antzeko neurriren bat (oraindik ezezaguna) indarrean egongo dela. Lehendabizi lehentasuneko batxilergoa egin duten horiek sartuko dira, eta ondoren beste guztiak. Beraz, oso argi eduki behar da egitura: plazak betetzear badaude ziklo batean, plaza horien %40 batxilergokoentzat izango da. Ehuneko hori banatzean, lehenetsitako batxilergokoek izango dute lehentasuna, eta momenturen batean nortzuk sartzeko diren erabakitzeko, hala beharko balitz, nota erabiliko da.

Kirol eta jarduera fisikoen gradua ikasteko, zein batxilergo-mota da egokiagoa?

Kirol eta jarduera fisikoen gradua ikasteko ez da batxilergo motarik lehenesten. Beraz, batxilergo- mota guztietako ikasleak baldintza beretan sartzen dira. Horrez gain, 14 puntu lortzeko haztatze- parametroen arabera, Oiartzoko 3 batxilergo-motetan egindako gaiekin lortu daitezke 14 puntu horiek. Aukera guztiak dira onak.

Zergatik da garrantzitsua 1. deialdian dena gainditua izatea 2. mailan?

Bigarren batxilergoan, batez ere unibertsitatera doazen horientzat, garrantzia handia du dena 1. deialdian (edo ohiko deialdian) gainditzeak. Unibertsitatean sarrerako nota duten gradu ia denak USE 1. deialdian (ekainean) egin dutenekin betetzen dira. Beraz, USE uztailean egin dutenak kanpoan geratu ohi dira. Gauzak horrela, eskari handia duen gradu batera sartu nahi duten horiek

1. deialdian (maiatzean) amaitu behar dute batxilergoa, ekainean USE egin ahal izateko.

Frantsesa aukeratu dezaket frantsesa sekula egin gabe?

Bai, noski. Lehenengo batxilergoko frantsesa interesa duen edonorentzat dago zabalik. Hala ere, inoiz frantsesa ikasi ez baduzu komeni da udaran oinarritzkoak diren jakintzak ikastea (A1 maila) izan ere, ikasturte hasieran frogatxo labur bat pasako da zuen maila zein den ikusteko. Froga honen zergatia hurrengoa da: badirelako ikasle batzuk DBH-n 4 urtez frantsesa ikasi dutenak eta gure asmoa frantsesa inoiz ikasi ez dutenak eta jada oinarritzko jakintza hori dutenak uztartzea bada ere, oso zaila egiten da hain erritmo ezberdinak lotzea. Horregatik, inoiz frantsesa ikasi ez baduzu, komeni da udaran oinarritzkoak diren jakintza horiek barneratzea, gainerako ikaskideekin paretsu ibiltzeko.

Zientzietatik joanda, GZ Matematika II egin dezaket bigarren batxilergoan?

Bai, noski. LOMLOE legeak dakarren nobedadeetako bat da. Zientzietako batxilergoa egiten ari direnak, eta unibertsitateko haztapan parametroetara begira zientzietako matematika beharrezkoa ez dutenek aukera izango dute GZ Matematika II egiteko Matematika II-ren ordean. Ondoren, irakasgai egingo litzateke selektibitatean (GZ Matematika II), zientzietako modalitateko batxilergoan titulatu bada ere.

Batxilergo Orokorra zertarako da?

Ez dago oraindik oso argi. Badakigu zein irakasgai dituen, zein den antolaketa, baina ez dakigu irteera profil anitz horrek nora ematen duen sarbidea. Batxilergo lehenetsiak eta goi-mailako zikloen haztatze parametroak aldatu bitartean, batxilergo orokorra egiten duten ikasleek goi-mailako zikloetan desabantaila izango lukete, izan ere, batxilergo lehenetsiak daude eta batxilergo orokorra lehentasuna duen ikasketarik ez dago. Dena dela, unibertsitatean gradu bat ikasi nahi dutenen haztatze parametroak egokitu dituzte, hortaz, irteera batzuetarako egokia izan daiteke. Hala eta guztiz ere, informazio guztia eguneratuta ez dagoenez, gure gomendioa hau da: Orokorrera sartu nahi dutenentzat egokiena Oiartzoko zein jatorrizko ikastetxeko orientatzailearekin hitz egin eta gauzak ongi baloratzea, kasuak banaka aztertuz.